

IKERKETA ESTRATEGIKOA

[POLICY PAPER < > POLITIKA-TXOSTENA]

Gizarte Berrikuntza: Lurraldegintza Estrategikorako

Dr Igor Calzada
Oxfordeko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzailea

Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Beterri

Oxford (Ingalaterra)
Ekaina-Uztaila 2015

Published by Translokal
Ekintzailetasun Akademikoa Herrigintzarako
Academic Entrepreneurship for Policy-Making SL
ISBN: 84-942752-5-9
2015 © @TransLoKal

Ref: Calzada, I. (2015), *Gizarte Berrikuntza: Lurraldegintza Estrategikorako*.
Policy Paper < > Politika-Txostena. Ikerketa Estrategikoa.
BeteBerritzen Proiektua
[Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoa Foru Aldundia eta Beterri].
Translokal argitaletxea. ISBN: 84-942752-5-9.

HITZAURREA

‘Gizarte Berrikuntza: Lurraldegintza Estrategikorako’ honako ‘ikerketa estrategiko’ politika-txosten hau, ‘Berrikuntza soziala eraginez. ‘Zenbateraino egiten eta eragiten dugu berrikuntza soziala? Lanerako oinarriak zehazteko egitasmoa’ eta ‘Beteberritzen: eskualdeko berrikuntza sozialean eragiteko prozesua’ txostenetan jasotzen da proiektua. Eta proiektuaren gaineko ekarpen zientifiko gisa aurkezten da honako dokumentua. Aipatu proiektua, Beterri, Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) eta Elhuyar Aholkularitzak burutu dute. Azken honek, Elhuyar Aholkularitzak alegia, 2015eko Otsailaren 5ean, Igor Calzadari txosten eta ebaluazio tresna entregatzearekin batera, balorazio txanda batzuk hasi zituzten proiektuaren inguruan:

Hasierako bilera horri, 2015eko Maiatzaren 19 eta Ekainaren 18koak gehitu zaizkio prozesuan. Azken bilera hau, bideo-konferentziaz egindako agerraldi, grabazio eta aurkezpen batekin osatua izan da. Une oro, Elhuyar Aholkularitzako, Aizpea Otaegi eta Oihana Garcia izan dira interlokutoreak Igor Calzadarekin elkarlan jarraian. Eta biak eskatuta, iragan Ekainaren 18an, Montevideo-tik (Uruguay) zuzenean, Beterri proiektuaren amaiera ekitaldian partehartu zuen, ‘ikerketa estrategiko’ politika-txosten honen behin-behineko emaitzak aurkeztuz.

Proiektu honen euskarri gisa, honako txosten honetaz gain, egun hartan erabilitako aurkezpena eta espreski bi egun lehenago, bideoan jasotako 17 minutuko aurkezpena bera entregatu zaizkio Elhuyar Aholkularitzari, GFA eta Beterri erakundeekin partekatu ditzan eta proiektuaren eta Elhuyar-ren webgunean txerta daitezten proiektuaren elementu gisa. Politika-txosten hau erabilgarritasun eta dokumentu akademiko aplikatu gisa bere erreferentzialitatea bermatzeko, hona erreferentzia osoa:

- Calzada, I. (2015) *Gizarte Berrikuntza: Lurraldegintza Estrategikorako*, Policy Paper < > Politika-Txostena, Ikerketa Estrategikoa: Beteberritzen Proiektua [Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoa Foru Aldundia eta Beterri]. Translokal argitaletxea. ISBN: 84-942752-5-9.

Behin entregatutako hiru txostenak sakonki aztertu ondoren (ikus Bibliografia 1, 2 eta 3), honako ‘ikerketa estrategikoa’ politika-txostena edo *policy-paperra* idatzi eginda honako helburu konkretuei erreparatuz:

1. Hemendik aurrera, Elhuyar Aholkularitzatik, Gizarte Berrikuntza eta Lurralde Garapen alorrean erabilgarri izan daitekeen gida-mapa estrategiko bat zedarritzea.
2. Bestalde, esan beharra dago hasieratik, autorearen partetik, Elhuyarrek burutu duen neurketa proiektuaren gainean, ez duela egin den lan bikaina epaitzeko asmorik; guztiz kontrakoa, egin den lanari ate berriak zabaltzeko bidea jorratuko du autoreak politika-txosten honetan zehar.
3. Izan ere, neurketa metodologia aurretik, GFA eta Beterriekin batera, abian jarri zenez, autoreak (honela jakinarazi dielarik, Aizpea Otaegi eta Oihana Garciari aurretiaz), ez du egindako lanaren inguruan atzera egiteko tentazioa izan. Bere horretan, metodologia esperimentatzeari ekin zaionez, abiapuntu garrantzitsu bat dela irizten dio.
4. Hala ere, metodologia guztiek ezinbesteko duten egokitzapen edo ‘arnas’ beharragatik, eranstea izan da autorearen hautu eta nahi nagusiena. Zentzu honetan, egindako lanaren aplikagarritasuna, ‘trantsizio’ erako aurrerantza irekitzen diren atek dira. 10 ate hain zehazki esanda.
5. Horregatik, eta Montevideo-ko agerraldian erabilitako eskemari men eginez, politika-txosten honek, Gizarte Berrikuntza, Lurraldegintza eta Estrategia uztartzen ditu hurrenez-hurren.
6. Azkenari helduz, ‘arnas’ hori gehitu nahirik, 10 Ate proposatuko ditu autoreak, Gizarte Berrikuntzaren ulermen eta Euskal Herrian izan lezakeen aplikazioaren transferentziarako, aholku estrategikoa emanez.
7. 10 Ate horiek, bi multzotan banatzen dira: atzeko 9 ate eta kanpoko ate bat. Autoreak horrekin egin nahi izan duena zera izan da, Elhuyar-rek diseinatu duen metodologia, etorkizunean egin beharreko egokitzapenetara prestatzea. Metodologiek, are gehiago Gizarte Berrikuntzaren alorretik abiatzen badira, ezinbestekoa dute malgutasuna eta prospekzioa. Gizartea, etengabe aldatzen ari da eta bere balio eta faktore baloratiboak, tokian tokiko erakundeek hartzen dituzten hautuetan oinarritzen dira ondorioz.
8. Horrexegatik, egokia iruditzen zaio autoreari, ‘ikerketa estrategiko’ honen baitan, 10 Ate horiek zabaltzea. Bestalde, Elhuyar-ri proposatzen diolarik, abiatutako bidearekin segitzeaz gainera, aurkeztu den ekarpena honi segida ematea hemendik aurrera ere. Autoreak uste du Euskal Herriko eta nazioarteko testuingurua egokia dela, lan-lerro horiek jorratzeko perspektiba estrategiko eta zabal batetik.

9. Bestalde, aurkezten den txostena, teknikez gain, faktore baloratiboz, gure aniztasun territorialaz eta paradigma sozio-ekonomikoekin osatu nahi du egin den irakurketa. Beti ere modu osagarrian.
10. Azkenik, autoreak eskerrak eman nahi lizkioke, lankidetzaz honetan aritutako, Aizpea eta Oihanari, bereziki. Eta baita ere, GFA (Innobasque, 2010) eta Beterri erakundeei. Aurrerantza begira, aldaketak aldaketa tarteko, animatzen dituelarik, Berrikuntza Sozialak Gipuzkoako lurralde mailan bete behar duen lekuaren bultzadari eusten. Eta zehazkiago, dagokion lekua eta baliabideak eskeintzen jarrai dezala, lurraldearentzako inbertsio jasagarri eta jarraia bermatuz, prozesu eta giza-gaitasunen konektatze horretan.

GIZARTE BERRIKUNTZA?

Gizarte Berrikuntza edo Berrikuntza Soziala ez da ‘berria’ Euskal Herrian. Bada ia hamarkada bat, konkretuki 2007tik, Innobasque eratu zela gutxienez EAEn. Bestalde, Nafarroa eta Iparraldean ere, izan da proiektu eta egitasmorik alor honetan edo bere eraginpean, EBaren 7. Programa Markoa eta berriki, H2020-aren politika publikoen babespean orohar (TEPSIE & WILCO). Hala ere, egokia da eskualde mailako testuinguru erregional eta europear zabalean erne egotea analisiak egiten direnean (Calzada, 2014), izan ere, sarritan eztabaida sanoaz haratago, gaizkiulertu asko sortzen baititu kontzeptuak berak, *leitmotiv* modukoak sortuz¹, zentzua ere galdu edo kontzeptuak ere hustutzero iritsi arte. Baina zertaz aritu izan gara Gizarte Berrikuntzaz aritu izan garenetan?

Zer da Gizarte Berrikuntza? Luze emango liguke, Gizarte Berrikuntzaren azterketa sakon eta taxuzko bat burutzea, ekarpen anitz eta orotarikoak bilduko lukeena burutuz, besteak beste, honakoak aipatu beharko genituzkeelarik (Ikus: Moulaert et al. 2009 & 2013; Mulgan, 2013; Grimm, 2013; Doh et al, 2010; Lettice et al., 2010; Urbact, 2015; Cosner, 2014; Mumford et al. 2003; Talukder, M., 2011; Evers, A. et al., 2014. Eta gainera hori ez litzateke ‘ikerketa estrategikoa’ txosten honen zioa izanen. Hala ere, egokia ikusten du autoreak ideia hau kontuan izanda aurrera egitea, izan ere, oso egokia iruditzen zaio, egin denaren inguruan hausnarketa eta estrategia egokiak erdiesteko sakontze lan bat.

Baina laburbilduz, gurean, modu sentziloan, Gizarte Berrikuntza, gizartea bera, bere eragile guztien batura lez ulertuta; erakundeen barrukalde eta kanpoaldetik modu uztartuan, kontzientzia, ardura eta eraldaketa sozialerako prestatzea litzateke modu mailakatu, eskalatu edo-eta disruptiboan. Definizioak definizio, lurraldearen ulermenarekin batera egokitu beharko genuke gurea. Hala ere, sarritan, gurean erreferentzia eta kasu ezberdinekin alderaketa² egitea oso baligarri izan zitekeela uste du autoreak (Calzada, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015).

Beraz, aztertutako txostenen arabera, oso modu laburtuan esan genezake lau direla Gizarte Berrikuntzen motibazioak:

¹ Calzada, I. (2008), *Leitmotiv: (Euskal) Gizarte Berrikuntza*, Berria egunkaria <http://www.igorcalzada.com/2008/05/leitmotiv-euskal-gizarte-berrikuntza>
Calzada, I. (2008) *Zoo-sociología de la innovación*, Diario Noticias de Gipuzkoa egunkaria, <http://www.igorcalzada.com/2008/01/zoo-sociologia-de-la-innovacion>
Calzada, I. (2008), *Innovación: ¿Para qué?*, Diario Noticias de Gipuzkoa egunkaria, <http://www.igorcalzada.com/2008/01/innovacion/>

² Kasu honetan, www.cityregions.org proiektua jarriko luke adibide gisa, ez bakarria baina bai Euskal Herria bere horretan bere gain hartzen duena.

1. Aseptikoa: Hiritar 'onak' izan nahi dugula argudiatzea. Alegia, ongizate estatuaren printzipioari eutsiz, 'fedezko' kontu pertsonal eta kolektibo gisa ulertutako kontzientzia moduko bat.
2. Ekonomikoa: Ekonomia eta bere egitura lokal guztiaren pizgarri izan litekeelako, erantzunkizun soziala eta ekonomiaren uztarketa bat proposatuz.
3. Enpresagintza: Enpresa eta erakunde-sistema guztiaren biziberritze eta eguneratze bat izan daitekeelako.
4. Komunitarista: Eta azkenik, komunitate-maila bera eta bere balioak indartzeko balio dezakeelako.

LURRALDEGINTZA



Hala ere gure lurraldea, bere hamaika ezaugarri eta zertzeledekin, anitza eta konplexua dela ezin liteke uka. Alde horretatik, Gizarte Berrikuntza, disziplinar-teko ikuspuntu kaleidoskopiko gisa funtzionatu beharko lukeela uste du autoreak. Maiz sinplifikazio disziplinar-tekoak behartuta, mugatu egiten dugu ulermena eta ondorioz, potentzialtasuna galdu. Gurean neurketarako pentsamendu arrazionalista izan da egunarte hegemonikoa. Autoreak uste du hori dela hain zuzen Gizarte Berrikuntzak izan duen bilakaera lotsatiaren arrazoi-eteriko bat. Agian lehenengoa eta nagusia.

Gure lurraldea txikia da tamainan. Txikia esaten denean, eskala maila territorialaz ari gara. Baina bestalde, hain juxtu, iharduera dentsitate andana izan da beti gure lurraldegintzaren gako nagusia garapen ekonomiko eta sozial endogenoa abiarazteko. Bailarak osatu izan dute lurraldearen ihardueraren unitate geografiko eta baita ere, ondorioz, unitate ekonomiko naturala. Gizarte-geografiak segmentatu du lurraldea, hizkuntza, hartueman eta baita ekonomiaren espezializazioak behartuz. Hala eta guztiz ere, sare-lurralde gisa funtzionatu beharko lukeen lurralde txiki batek, bere disfuntzioak azaleratzen ditu etengabe, lurralde historikoen legearen atzeraetzintasuna kausa nagusia izanik. Honek, Gizarte Berrikuntza arazoan irtenbidegai bihurtu beharko lukeelarik. Egia da bestalde, Europa mailan, autogobernu eta zerga-gaitasun gorenetakoa lurraldea izaki, enplegu eta ongizatea babestea lortu dela gizarte-politiken mesedetarako. Eta agian hain juxtu, ongizatea bermatuz, babes sozial eroso hori lortu izanagatik erakundeetatik, gizarte aktibaztea nekeza gertatzen da. Ekintzailetasuna erakunde programetatik haratago, kultura nahiz proiektu ekintzaileen sorrera, oso lotsatia den prozesu bat da. Eta hori Gizarte Berrikuntzaren biziberritze prozesua zaildu, moteldu edota lokartuarazi egiten ari denaren hipotesia aurreikusi eta konfirmatzen joan gintezke apurka-apurka, lurralde mailako zenbait politikengan eman den erantzuna kontuan izanik.



Hala ere, enpresa munduan bakarrik zabaldua dagoen kanpo-proiektzioa oraindik sektore gehiagotara zabaltzeko beharra dagoela proposatu nahiko litzateke politika-txosten honetan.

Gure paradigma sozio-ekonomikoen alternatiba gehiago eratu eta trinkotu ahal izateko, nazioarterekin hartueman burutu beharra dago ‘arnasa’ hartzeko bidean.

Hain zehazki, Gipuzkoak, lurraldegintza inguruko politikak, euskal geografiekin bateraturik egin beharko lituzke. Ezpaita posible hain lurralde murriztuan, baliabideen erabilera teilkatua izatea arau nagusia. Zentzu horretan, hemendik aurrera esaten direnak, baliagarri lirateke Gipuzkoatik haratago euskal geografietan barrena ere.



Gizarte Berrikuntzak, lurraldegintza estrategiko batetarako bermea izan beharko luke, enpresen, tokiko lurraldeen eta dauden erakundeen gaindi. Azken batean, Gizarte Berrikuntza eragileak eta proiektuak binomio gisa ulertu beharko genuke. Eta lurralde jakin bati baino, lurraldegintza estrategiko bati erantzunez, luzera begira, egunerokotik eta oinak lurrean.


BASQUE




ESTRATEGIKORAKO?

Honela iristen gara, 'ikerketa estrategikoa' txosten honen gakora: Gure lurraldegintza, estrategietan txertatu beharko genuke Gizarte Berrikuntza bera, ez modu partzialean, baizik eta orotara, politika guztiak zipritzzea erdietsiz.

Arestian aipatu den moduan, atal honetan, Elhuyar-ren metodologia aztertu ostean, zeharka eta hemendik aurrerako egitekoak zehazten dira. Honetarako, Montevideotik, Ekainaren 18an honako behin-behineko hezurdura kontzeptual-metodologiko zirriborroa aurkeztu zen:



Honelako behin-betiko bertsioa egokituz saioaren ponentziak eta elkarrekintzak interesez entzun eta partekatu ostean:



Hona jarraian hurrenez-hurren, aipatu moduan, Elhuyar-ren metodologia eta esperimendazio fasearen ostean, autoreak ireki nahiko lituzkeen atak. Esan nahi baita, aurrerantzean Elhuyar-rekin elkarlanean zabaldu ahal izateko ate gisa aurkezten direla, erantzunak baino galdera berriak proposatuz ‘ikerketa estrategiko’ honen ekarpenetik.

1.go Atzeko Atea: 3 Paradigma Sozio-ekonomikoen Bizikidetzak.

Aski ezagunak dira, gure lurraldean, konkretuki Gipuzkoan, herri-konstelazio gisako lurraldegintza bat izanik, lankidetzarako zailtasun eta disfuntzio instituzionalak. Eta zehazkiago esateko, azkeneko lau urte hauetan izan den dinamika instituzionalak argi utzi du, proposamen ezberdinen arteko lehiatik haratago, bizikidetzarako zailtasuna, edo politiketatik haratago, argudio azalekoetan trinkotzen ditugun jarrera ‘tribalak’. Tribugintzak, zubigintzari bidea ireki beharko lioke, sozial eta ekonomikoki hartu beharreko neurrien aurrean erabaki arrazionalizatuak hartzeko. Honela beste kultura politiko batean geundeke. Izan ere, ‘eredu talka’ edo ez, kontraesanak eta ikuskera ezberdinak izatea normala da, ez ordea, horiek kudeatzeko dauden trabak. Eta hain juxtu, hor du bere funtzioa (ere) Gizarte Berrikuntzak.

Honako esaldiak jasotzen du, autoreak esan nahi duena (Calzada, 2015: 24):

‘Epe luzeko eztabaidak maite ditut,

hain epe luzeko ze, badakidan,

inorena ez dela arrazoia

- non eta ez den biona –‘.

Batzuetan, irizpide ezberdinak erabiliz, kontzeptua bera dudakor gisa kontsideratzeko atrebentzia izan dugu. Beste kontu bat izanik azaleratzen duena: konplexutasuna eta kontraesanekin aurrera egiteko ezintasuna.

Zentzu horretan eta batipat, hegemonikoa izan den pentsamendu ekonomizista-razionalista medio, lehiakortasun ekonomikoa ‘soilik’ izan da irizpide bakarra. Ez da harrizkoa, gure unibertsitateetako fakultateetan, ekonomiaren eskola neoklasiko ortodoxoa (gaur egun, neoliberalimo hitzera murriztua, modu okerrean) soilik egon izana, besterik egongo ez balitz bezala. Horrek behartu du, besterik ezean, Gizarte Berrikuntzaren bertsio ‘ofizializatu’ hori bakarrik aurkitzera erreferentzien artean. Eta jakina denez, 2008ko krisiak sortu duen gizarte pitzadura galanta medio, bestelako proposamen batzuk ere gurean entzuteko parada izan dugu azken urteotan zorionez.

Laburbilduz eta sinplifikatuegia izateko arriskuarekin, hiru paradigma sozio-ekonomikorekin lotuta agertzen zaigu Gizarte Berrikuntza:

1.- Lehiakortasun Ekonomikoa: Hegemonikoa eta hazkunde/lehiakortasunean ulertuz gizarte berrikuntza funtzionalitate gisa (bitarteko moduan), erakundetze-prozesuen batura gisa.

Oso mugatua da paradigma hau eta hori ez da okerrena, izan ere, bestelako biak oso modu mesfidatian eta zuhurtzirik gabeko proposamen postmoderno gisa ikusten dituelako. Hala ere, jasangarritasun alde eta austeritate politika ekonomiko atzerakoiek irtenbidea topatzen ez duten heinean, paradigma hau aldatzen eta irekitzen hasia dago, pisua ere galduz zenbait kasuetan, beste erremediorik ezean.

2.- Gizarte Kohesioa: Aurrekoaren oinordekoa eta zenbait erakunde publiko eta gizarte zibiletik abiarazi den erdiko bidea izan da (Bizkaiko Foru Aldundia, 2014). Aski ezaguna da Transition Movement-ari lotu geniezaioke apika. Kritika eraikitzailea eginez politika publikoen eskutik sistemari egokitzapenak egiten saiatzen dena. Oso subsidiatua egon litekeen bidea da eta Europako herrialde nordikoetan azken bi hamarkadetan egindako akatsetatik ikas lezakeen paradigma. Euskal erakunde ia gehienak paradigma honetan egin dituzte zenbait saiakera, baina oso modu periferikoan.

3.- Gizarte Eraldaketa: Porter-ren posizionamendu estrategikoa, Schumpeter-ren suntsipen sortzailea edo Christensen-en berrikuntza teknologikoa kapitalismoarekin erkatu ostean maiz, ezker gizarte mugimenduetatik, Gramsci-ren abiapuntutik eratorria den, gizarte eraldaketaren paradigma dugu. Azken urteotan hazkunde nabaria izan duena lehiakortasun ekonomikoaren alternatiba gisa sortua. Kooperatibagintza komunitario eta gizarte ekonomiatik abiatutako paradigma da honakoa.

Laburbilduz, Gizarte Berrikuntza paradigma bakar batean ezin da ulertu. Are gutxiago, paradigma bat beste baten gaindi jartzea erratua da eta sarritan jotzen da deskalifikazioetara. Paradigma bakoitza, gizartea eta ekonomia uztartzeko ikuskera ezberdindua du, ekonomia politikotik.

Euskal Herriko kasuan, bizikidetzeta nola edo hala bermatzea ezinbesteko ariketa litzateke, kontraesanekin bizi eta berauek balioan jar ditzagun. Lehenengo atzeko ate honetatik une batez bada ere sartu-irtenak egin eta atea erdi irekita uztea gomendatuko luke autoreak.

2.go Atzeko Atea: 3 Lurralde Eskalak.

Aztertu egin den Beteberritzen proiektua, bailara konkretu bateko errealitatea diagnostikatu eta eragileak nahasteko xedea izan du. GFAtik dirulagundua izanarren, lurralde eskala mikrotik mesora igarotzea zuen xede. Tokiko garapenetik, eragile bakan eta haien harremanetaz gain, bailara maila izanik garatu beharreko eskala.

Autoreak uste du prozedura egokia dela. Hala ere, eta egoera hau adibidetzat hartuta, lurralde eskalen gaia atzeko ate gisa zabaltzea ezinbestekoa da. Alegia, lurralde eskalen Makro, Meso eta Mikroa (Calzada et al, 2013) izaten ari da Gizarte Berrikuntzaren gakoa azken urteotan. Oso proiektu egokiak egiten ari dira maila Mikroan (proiektuak) baina gero zailtasunak estrukturalak agertzen ari dira horiek maila Meso (Prozesuak) eta Makroarekin

(Politikak) konektarazteko. Hau ez da Euskal Herriko erakunde sistemaren gabezia edo disfuntzio bat, izan ere nazioarteko baina zehazkiago Europar Batasunako (EB) lurralde askotan errepikatzen ari den fenomeno da.

Autoreak ez du ezagutza enpirikorik eta ebidentziarik kontu hau nolabait baloratzeko Beteberritzen proiektuan, baina egokia iruditzen zaio arrisku eta akats-iturri nabarmena den honetan sakontzea. Horretarako, Elhuyar-rekin batera atzeko ate hori ere zabaltzea egokia iruditzen zaio. Eskalagarritasuna izanik egungo ezaugarri zail baina emankorrena Gizarte Berrikuntzaren inplementazioan.

‘Eredu talka’ aipatu denean arestian, autoreak, adibide gisa jarriko luke Gipuzkoan Atez-Ateko aferarekin gertatu dena. Analisi askorako emango luke eta seguruenik pertzeptzio eta psikologia sozialaren topo egingo genuke, baina autoreak hiru lurralde eskalen kudeaketa faltari egotziko lioke jasotako ondorioetarik nagusienak (Calzada, 2013). Horrexegatik lurralde eskalen arteko gobernantza eredu mailanitzak akatsik gabekoak beharko lukete izan. Honatx hobekuntzarako esparru oparoa.

3.go Ateko Atea: Politika Publikoak.

Lurralde eskalen aurreko atzeko atea zabalik utzita, politika publikoekin egiten dugu topo. Hain zuzen, hemen, administrazioaren diseinu klasiko eta fordistekin egiten dugu tupust. Alegia, Gizarte Berrikuntzako proiektuak transbertsalak eta zeharkakoak izanik, administrazioaren politika diseinuan ere eragin beharko luke. Gizarte Berrikuntza ezin da izan departamentu bakar bateko kontua. Horregatik politika publikoak eraginda, berrikuntza publiko bat egitea ezinbesteko lana da.

Atzeko ate hau modu gradual batean eraginarazi beharra dago administrazioan berrikuntza publiko bat ere eratuz. Hezkuntza, ongizatea, osasuna, ogasuna, ekintzailetasuna, turismoa, teknologia, etab ezin dira izan gune itxi eta estankoetan ulertu. Ikuspuntu horretatik Gizarte Berrikuntzaren planotik egiten diren proiektu Mikroak, non gero maila Mesora eskalableak diren, bere eragin paraleloa izan behar dute erakundeen barruan ere. Alde horretatik, ‘gap’ bat egon liteke Gizarte Berrikuntzaren ekosistema ekintzaile eta administrazio publikoaren artean.

Jakin badakigu oso gai estrukturalen aurrean gaudela kasu honetan. Hala eta guztiz ere, Gizarte Berrikuntzaren estrategiaren baitan, aurrerantzean atzeko ate hau zabaltzen joatea ezinbestekoa da, bestela paralisi bat gertatu daiteke, ‘botilaren muturra’ efektua gertatu daitekeelarik, proiektu asko eta anitzak bere gain hartu ezin ditzakeen administrazio baten gainean, konplexutasun eta presio handiegia jarriko baitugu. Horretarako, administrazio diseinuak ere proiektuekin batera aldarazten joan beharko liriateke. Azken batean, Gizarte Berrikuntza zerbitzua eman beharko lioke politika publikoen diseinu berriei ere. Hemen lan

handia dugu, Euskal Herriko erakundeak egokitzeko eta hartara ‘gap’ hori gainditzeko. Administrazioa prestatu egin behar dugu, Gizarte Berrikuntza loratu dadin edozein egitasmorekin, eskalagarri eta ekoizgarri eginez.

4.go Atzeko Atea: Lanabesak.

Gizarte Berrikuntza erakundetzen hasi zenetik EAEn, arestian aipatutako posizionamenduaren paradigma soilik aplikatu izan du. Oso lan gutxi eta periferiko izan dira nolabaiteko bestelako metodologia kualitatiboak erabili dituztenak. Euskal Gizarte Berrikuntzak, ‘frogatu’ beharra lehenesten du, ‘ulertu’ baino. Autoreak, Gizarte Berrikuntzaren ‘hermetika’ri garrantzia ematea proposatzen du. Alegia, Gizarte Berrikuntza zentzuz bete behar dugu, proiektuez, eragileen motibazioz, haien arteko prozesuez, testuinguruaz, testuinguru horiek erlatibizatzeaz. Sarri sentazioa ematen du ‘autarkia’ metodologiko zurrinak baino ez ditugula ‘zientifikotzat’ ‘aplikagarritzat’ jotzen. Eta hori, autorearen iritzian, ez da osoa eta mugatzera garamatza.

Beraz, hemen atzeko beste ate metodologiko hau zabalik uzteko hautua egitea proposatzen du autoreak. Metodologia kuantitabista eta neurtzaileaz gain, ‘zer’ hori, proiektua bera azalduko dutenekin lanean jartzea. Horretarako lanabesak behar ditugu, lanabesak diseinatu. Lanabes kualitatibo edo ‘mixed methods’ deritzaion, metodo uztartuen bidez. Hemen *action research* bezalako metodologia-multzoa beharko luke izan gidari.

Euskal Herriko idiosinkrasia eta kultur-praktikek gure pentsamenduan duen garrantziaz jabetuta, alegia, bertsolaritza, musika, artea, dantza etab, autoreak uste du, Gizarte Berrikuntzari ‘moduetan’ eta esanahiak azaltzeko lehengai/formato egoki anitz ditugula jadanik. Horretarako ‘*toolkit*’ bat eratzen joan beharko ginateke ‘kuantitatibismoaz’ haratago.

Eta agian, Sarrionandiaren (2015) ‘Mailua, Karakola eta Poxpoloa’ metafora erabiliz, ‘gure’ Gizarte Berrikuntzari zentzua bilatzen hasi behar gatzaizkio. Baditugu faktore baloratiboak non gure proiektuak eutsi (euskera, generoa, ikerketa, gobernantza, sormena eta dinamismoa, ...) baina proiektua bera egin behar dugu azaltzeko moduan izan dadin, ulergarri, unitate oso bezala.

Gai honetan, metodologia kualitatiboa behar dugu, kuantitatibo eta kuantitatibismoa osatzeko. Ate horretatik barna badago zer landu elkarlanean.

5.go Atzeko Atea: Faktore Baloratiboak.

Honela iristen gara Elhuyar-rek burutu duen metodologiaren bihotzera eta agian, gakoa dagoen lekura. Elhuyar-rek (2015: 7) ‘ebaluazio tresna’ deitzen dion irizpide taulara:

Ebaluazio-tresna

bet^{erri}zen

	SUSTATZAILIAK	ERAGINDAKOAK	GIZARTEA	BATEZBESTEKOA
Sormena eta dinamismoa	Green	Light Green	Light Green	Green
Elkarlan irekia	Light Green	Light Green	Yellow	Light Green
Gobernantza demokratikoa	Green	Light Green	Yellow	Light Green
Euskararen sustapena	Green	Green	Yellow	Green
Emakume eta gizonen berdintasuna	Yellow	Yellow	Yellow	Yellow
Garapen lokala eta iraunkortasuna	Yellow	Yellow	Yellow	Yellow
Bideragarritasuna	Light Green	Light Green	Light Green	Light Green
Ezagutzaren zabalkunde eta transferentzia	Light Green	Light Green	Yellow	Light Green
BATEZBESTEKOA	Light Green	Light Green	Yellow	Light Green


Agian hau da Elhuyar-ren metodologiari zuzenean eragiten dion atzeko atea. Kanpoko begirada puro batek, egin ahal izango liokeen kritikarik zorrotzena. Hala ere, autoreak erdibideko posizio bat hartzen du 'ikerketa estrategiko' honetan. Alegia, guztiz ulergarria egiten zaio, faktore baloratibo horiek, Beterrri proiektuan erabili izana. Oso zentzuzkoa egiten zaio balio baloratibo horien esleipena. Baina, eta metodologiaren baliogarrtasuna kontuan izanda eta Euskal Herriko lurraldegintza anitza eta konplexuari men, metodologiari dagokionez, faktore baloratibo hauen zerrendaratzea irekia moduan (alegia N faktore gisa) uztea gomedantzen du autoreak.

Metodologiaren baliogarrtasun osoa bermatuz, atzeko 5. ate hau zabalik uzteak, irekiera eta potentzialtasuna gehituko liezaioke, proiektu eta erakundeen soslaiari egokitzuz metodologia bera, eta ez alderantziz. Are gehiago, eztabaida interesgarria legoke Gizarte Berrikuntzaren paradigma sozio-ekonomiko ezberdinek hemen 'talka' baino enkontrua eduki ahal izango luketeelako.

6. go Atzeko Atea: Stakeholder (eragileak).

Enkontru eta eztabaida honetan, ezinbestean, eragile soslai ezberdinak txertatzea ezinbestekoa dugu. Alegia, Euskal Herriko Gizarte Berrikuntza paradigma, lehiakortasun ekonomikoarena izanik, publiko eta pribatu aliantzan soilik ulertua izan da. Eta Gizarte Berrikuntzako *triple-helix* arekin (publiko, pribatu eta zientzia/teknologia) laburbildu, dinamika enpresarial huts baten logika aplikatuz, sistema ekonomikoaren hegemonia lehenetsiz.

Autorearen ustetan, hori oso begirada murriztatzailea da. Eta Beterrri proiektuan oso garbi ikusi izan den moduan, egun Euskal Herriko Gizarte Berrikuntza mapan badaude bestelako soslaia duten aktoreak.



By @icalzada

Zentzu honetan, *triple helix*-a baino, *penta helix*-a erabiltzea gomendatzen du autoreak. Beterri bezalako proiektua egiten direnan, badira soslai publiko eta pribatutik haratago, bestelako eragile batzuk. Eta nolabait eragile horien harremanen ondorioz, sortzen dira kontraesanen identifikazioa eta batera zein bestera konpontzeko dinamikak.

Elhuyar-rek egin duen metodologia, eragileak oso modu estatikoan hartzen dira. Eta orohar, Euskal Herriko erakundetze-logikak beti estatikotasunean ulertzen ditu erakundeen iharduerak eta hauen arteko harremanak.

Ahalegin berezi bat egin beharko litzateke, Gizarte Berrikuntzaren iharduera ahalik eta eragile soslai zabalenera iristeko. Euskal Herriko testuinguruan ‘endogamia’ eta ‘berdintasuna’k pentsamendu ortodoxoaren perpetuazio eragiten du eta hortik, berrikuntza-ezara edo ondo kudeatzen ez den gatazkara.

Horrexegatik, ate honek proposatzen du, aski aipatzen den pluraltasun edo aniztasun horri atea zabaltzea edo gutxienez lan kontziente bat egitea honen inguruan.

7.go Atzeko Atea: Operatiba Hibridoak.

Ondorioz, 7.go Atzeko Atera iristen gara. Nazioarteko eta EBeko Gizarte Berrikuntzan puntakoak diren proiektuetan, arrakasta faktore bat hauxe da: Operatiba Hibridoak diseinatzea. Betiko konfort-gunean egon eta betiko pertsonekin harremanentzeak, ez dakar bere horretan ideien eta proiektuen sorrera.

Gai honetan ahalegin berezi bat egiten ari dira Iparraldeko Europako herrialde eta erakundeak. Eta hemen, bada zertan berritu formato eta testuinguru berriak sortzeko. Hala ere, gero, erakundeen bermea eta lidergoa ezinbestekoa da, jardua hauek trinkotu eta gizarteratzeko apurka apurka.

Gurean zailtasun handienak, akademiatik etor litezke. Eta bestalde, urteetan zehar garatu izan den gizarte ekintzaile/aktibisten jardunari behar bezalako euskarria eman ez zaionez, nekez mobilizatuaraziko dira pertsonak eta proiektuak olatu hori pasa eta gero. Alegia, operatiba hibrido horiek, joko-arauak ere aldatzen joan behar dira, pizgarri materialak eskeiniz, Gizarte Berrikuntza erakundeen barruan sar dadin, ekintzaileak (erleak), egituretan (arbolak) eragin eta eralda ditzaten.

8.go Atzeko Atea: Irekia eta Digitala.

Honela iristen gara, 8. go atera. Hain juxtu, aurrekotik tiraka. Operatiba hibrido horiek egun, lehengai premiazko batekin topo egiten ari baitira: datuak. Egun, datuen iraultza bizi dugu. Baina argi geratzen ari den moduan, datuak, erabiltzaileen eskutan eta eragileen bermearekin kudeatu beharko ditugu. Horrexegatik, ireki beharreko 8. Atea, Gizarte Berrikuntzarekin erlazionatutako proiektuen datuen kudeaketarena da. (Mayer-Schönberger, 2013).

Aspektu konkretu honetan, Euskal Herriko erakundeak oso modu partzelatuan ari dira. Gizarte Berrikuntza proiektuak bestalde, geroz eta eduki gehiago izango dute datuekin zerikusia dutena. Horrexegatik, garrantzitsua da, aurreikusten honekin jokatzuz, 8. ate hau zabaltzen joatea estrategikoki.

Dagoeneko, Gizarte Berrikuntza sustatzen duten proiektuek aldagai hau modu irekian eta formato digitalean txertatu beharko lukete. Zehazki, digitalizazio prozesuak, Gizarte Berrikuntzaren prozesuekin uztartuta ikusiko ditugunez, pribatasun, identitate digitala, datu komunak, erabilera eta eragina aztertzen joatea ezin bestekoa izango dugu berandu baino lehen. Ondo legoke, gai honi heltzea, eskuartean ditugun proiektuekin.

9.go Atzeko Atea: Eraginak.

7. eta 8. atek zabaltzearen ondorioz, Gizarte Berrikuntzak eraginak neurtzearen saiakera eta sakontze-lan berezi bat egin behar du. Alor honetan, asko dira egun, eragin ekonomiko, soziala, komunitarioa eta ingurugirokoa elkarlotzen ari diren proposamenak. Gurean, beraz, eragin ekonomikoaren hegemoniatik haratago, bilatu beharko genuke, eskuartean ditugun proiektu horien, lotura eta eragin gurutzatuak neurtzeko moduak.

Eraginak neurtzea diogunean, aurretik azpimarratu moduan, ez gabilta neurketa kuantitibistaz soilik. Haratago, kualitatibo eta kuantitatiboan baitago gakoa. Egun aldaketa sistemikoak hain nabarmenak direnean, eraginak ez dira kausa-efekto harreman moduan ulertu behar. Horregatik, gurean, ariketa hau etengabekoa beharko luke izan eragileen artean.

Sakontasunezko adibideak eduki beharko genituzke oso ondo errotuak gure lurraldegintzaren etnografiekin aski irakurgarriak izateko moduan.

Eta hemen, kanpoko begirada ezinbestekoa dugu. Gureak, aski normalak egiten zaizkigun jardunak, kanpoko begirada gardenarekin begiratuko lukeen, begirale batek, oso bestelako irakurketa egingo lukeelako.

Azkenik ere esan, eraginen azterketa eta lanketa serioak egin ezker, 4. Atearen bidez, 2 eta 3. Ateak irekitzea erreztuko ligukeela. Alegia, lanabes egokiekin, eskalen eta politiken artean sofistikatuagoak lirartekeen neurriak finkatu, Gizarte Berrikuntzaren inplementaziorako.

10.go Kanpoko Atea: Nazioartea.

Honela iristen gara kanpoko atera. Nazioarteari ireki beharreko atera:

Politika-txosten honetan zehar, etengabeak izan dira EB eta nazioarteari egindako keinuak. Izan ere, Euskal Herrian egiten dugun Gizarte Berrikuntzak gabezia handi bat du: ez gara kanpoko ispiluan ikusten, baizik gure barruko ispiluetan egiten dugu alderaketa. Honek lurraldegintza zabal baten noziora eraman beharko liguke: alegia, 'lokalizazio ezberdinak izanarren, arazo berdintsuak ditugunaren'³ ustetan, Gizarte Berrikuntza ulertzer.

Euskal Herriko Gizarte Berrikuntzaren geografia, translokala beharko luke izan. Alegia: 1) Sare-bidezko hartuemanen ondorioz josi eta ehuntzen dugun egitura arin eta malgu bat. 2) Proiektuekin hezurramitzen duguna.

Ildo honetan, autoreak uste du, EBaren baitan, badirela aukera bide hau lantzen hasteko, finantziario-iturriak aztertu ostean eta bidaide edo bazkide potentzialak ere kontuan izanda.

Gizarte Berrikuntzaren gure barne-jardunari, mesede handia egingo lioke (zilegitasuna lortzeaz gain), nazioartea, han eta hemengo uztarketa gisa ulertuko bagenu: ez dugu gurea kanpoan saldu behar, baizik eta, kanpoarekin, elkarbizi, atek zabaldu, eta gure problematikak partekatu beharko genituzke, entzunak izan, eta aldi berean, besteak entzun ahal izateko.

Azken batean, egiten dugun Gizarte Berrikuntza erreferentziazkoa izanen da nazioartean eta gurean balioan jarriko dugu, etengabekoa bada, harremana. Ildo honetan, aurrenik ere, Gizarte Berrikuntzaren 'sektorean' Euskal Herrian diharduten eragileak (erakunde publiko, pribatu, unibertsitate, ikerketa/teknologia zentruak, etab) elkarlanerako prestutasun handiagoa erakutsi beharko lukete. Sareak eta proiektuak egiteko ezinbestean behar dugu barneko gizarte kapital bat eratu, nazioartean, branding bat izateaz gain, estrategiadun Gizarte Berrikuntza baten protagonista bihurtaraziz gutariko bakoitza. Norbera dagoen lekutik, norabide berdinean bat elikatuz, lerratuz, aurrerantza.

³ <http://www.igorcalzada.com/2011/08/networks-territory-university-of-malmo-sweden>

BIBLIOGRAFIA

1. Elhuyar Aholkularitza (2014), *Berrikuntza soziala eraginez: Zenbateraino egiten eta eragiten dugu berrikuntza soziala? Lanerako oinarriak zehazteko egitasmoa*. Txostena.
2. Elhuyar Aholkularitza (2015), *Beteberritzen: eskualdeko berrikuntza sozialean eragiteko prozesua*. Txostena.
3. TEPSIE (2012), *Defining Social Innovation*.
4. Bizkaiko Foru Aldundia (2014), *Ecosistema de Innovación Social en Políticas Públicas*.
5. CITIE (2015), *City Initiatives for Technology, Innovation and Entrepreneurship: A resource for city leadership*.
6. EKAI (2014), *Herritartasunaren eta Lurraldearen Hiru Ikuspegi: Toki Garapena, Herritaren Parte Hartzea eta Euskararen Berreskurapena*.
7. Mulgan, G. (2013), *The Locust and the Bee: Predators and Creators in Capitalism's Future*. Princeton.
8. Grimm, R., et al. (2013), *Social innovation, an answer to contemporary societal challenges? Locating the concept in theory and practice*, *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 26:4, 436-455, DOI: 10.1080/13511610.2013.848163
9. Lettice, F. et al. (2010), *The social innovation process: themes, challenges and implications for practice*. *Int J. Technology Management*, Vol. 51, No. 1.
10. Doh, S. et al. (2010), *Innovation and Social Capital: A Cross-Country Investigation*, *Industry and Innovation*, 17:3, 241-262 DOI: 10.1080/13662711003790569.
11. Orkestra, Universidad de Deusto (2013), *Informe de Competitividad del País Vasco 2013: Transformación productiva para el mañana*.
12. URBACT (2015), *Social Innovation in cities*.
13. Saunders, T. et al. (2015) *Rethinking Smart Cities from the Ground Up*. NESTA.
14. Sennett, R. (2013), *Together*, Penguin.
15. Moulaert, F. (2009), *Social Innovation and Territorial Development*. Ashgate.
16. Sarrionandia, J. (2015) Sautrela.
17. Cosner, S. et al. (2014), *Role of the State-Level Governments in Fostering Social Innovation*. *Journal of Policy Practice*, 13:3, 135-155, DOI: 10.1080/15588742.2014.901205.

18. Mumford, M. et al. (2003), *Cases of Social Innovation: Lessons from two innovations in the 20th century*, Creativity Research Journal, 15:2-3, 261-266, DOI: 10/1080/10400419.2003.9651418
19. Talukder, M. et al. (2011), *The Impact of Social Influence on Individuals' Adoption of Innovation*, Journal of Organizational Computing and Electronic Commerce, 21:2, 111-135, DOI: 10.1080/10919392.2011.564483
20. Evers, A. et al. (2014), *Social Innovations for Social Cohesion: Transnational patterns and approaches from 20 European cities*. WILCO.
21. Mayer-Schönberger, V. et al. (2013), *Big Data: A Revolution That Will Transform How We Live, Work and Think*. JM.
22. Innobasque (2010), *Be In Gipuzkoa*.

AUTOREAREN ERREFERENTZIA OROKORRAK

1.- Eusko Jaurlaritza: Gizarte Berrikuntza lurralde ikuspegitik. (Liburua)

- Calzada, I. (2011b), [*¿Hacia una Ciudad Vasca? Aproximación desde la Innovación Social*](#). Vitoria-Gasteiz, Edit. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2011. ISBN: 978-84-457-3180-2.

2.- Innobasque: Gizarte Berrikuntza lurralde ikuspegitik. (Liburua)

- Calzada, I. (2011a), [*Towards the Basque City: Comparative Territorial Benchmarking from the Social Innovation. Portland & Dublin case studies*](#). Zamudio, Innovation Basque Agency, Innobasque, 2011. Depósito Legal: BI-3114/2011. CC 3.0.

3.- Postindependentzia: #HanIzanikHonaGara (Liburua): Gizarte Berrikuntzatik nazioarteko ikuspegia, Euskal Herriari begirada, disziplinarrekotasun estrategikoa. www.postindependence.org & www.translokal.com

- Calzada, I. (2015), [*PostIndependence*](#), TransLoKal – Academic Entrepreneurship for Policy Making – Publishing, Donostia. ISBN (e-book): 978-84-942752-3-4.
- Calzada, I. (2014), [*PostIndependentzia > #HanIzanikHonaGara*](#), [TransLoKal](#) – Academic Entrepreneurship for Policy Making – Publishing, Donostia. ISBN (e-book): 978-84-942752-1-0 & ISBN (paperback): 978-84-942752-2-7.

4.- Edward Elgar Publishing 'International Handbook on Social Innovation' (Liburua): Mondragon kasua, Gizarte Berrikuntzatik.

- Calzada, I. (2013), [*Knowledge Building & Organizational Behaviour: Mondragon Case*](#), Chapter in the Book Moulart, F., MacCallum, D., Mehmood, A. and Hamdouch, A. International Handbook of Social Innovation. Social innovation: Collective action, Social learning and Transdisciplinary research. Cheltenham: Edward Elgar (UK) Publishing.

5.- Journal of Public Policies & Territory (Artikulu zientifikoa): Ikuspegi europearra.

- Calzada, I. (2013), [*Critical Social Innovation in the Smart City era for a City-Regional European Horizon 2020*](#). Journal of Public Policies & Territory P3T. Vol 2, N° 6 (2013): Social Innovation & Territory. Winter. pp. 1-20.

6.- Journal of Urban Technology (Artikulu zientifikoa): Hiri adimentsua Gizarte Berrikuntzatik.

- Calzada, I. & Cobo, C. (2015), *Unplugging: Deconstructing the Smart City*, *Journal of Urban Technology*. DOI: [10.1080/10630732.2014.971535](https://doi.org/10.1080/10630732.2014.971535). [Published]
- Calzada, I. & Cobo, C. (2012) *Unplugging: Beyond Hyper-Connected Societies Project (2013-2015)* <www.unplugging.eu & www.torch.ox.ac.uk/unplugging> Accessed April 14 2015.

7.- Journal RSRS Regional Studies Regional Science (Artikulu zientifikoa): 8 Lurraldean Konparaketa Gizarte Berrikuntzaren ikuspuntutik. Euskal Herria, Eskozia, Katalunia, Islandia, Oresund, Manchester/Liverpool, Portland eta Dublin.

- Calzada, I. (2015), *Benchmarking Future City-Regions beyond Nation-States*, *RSRS Regional Studies Regional Science*, 2:1, 350-361, DOI: [10.1080/21681376.2015.1046908](https://doi.org/10.1080/21681376.2015.1046908). [Published]
- Calzada, I. (2012) *'City-Regions' Benchmarking Future City-Regions Project (2012-2015)* <www.cityregions.org> Accessed April 14 2015.

8.- Udako Ikastaroak UPV 2005, 2006, 2007 eta 2015 (Liburu eta soportu dokumentalak): Sormena eta Gizarte Berrikuntzaren inguruko ikuspegi longitudinala 2005-2007.

- Calzada, I. & Bildarratz, J. (Ed.) (2015), *Political Innovation: Constitutional Change, Self-Government, The Right To Decide & Independence*, TransLoKal – Academic Entrepreneurship for Policy Making – Publishing, Donostia. ISBN (paperback): 978-84-942752-4-1. [Forthcoming] <http://www.berrikuntzapolitikoia.eus>
- Calzada, I. (Coord.) (2007), *Creative Society*. (DVD).
- Calzada, I. (Coord.) (2006), *Creative Capital*. (DVD).
- Calzada, I. (Coord.) (2005), *The Future of Work. The Work of the Future*.

9.- Gizarte ekintzaileekin eratutako Gizarte Berrikuntza metodologia (Liburua).

- Calzada, I., Chautón, A. & Di Siena, D. (2013), *MacroMesoMicro: Systemic Territory Framework from the perspective of Social Innovation*. ISBN: 978-84-616-5217-4.
- Calzada, I., Chautón, A. & Di Siena, D. (2013), *MacroMesoMicro: Marco Sistémico de Territorio desde la Innovación Social*.

AUTOREAREN ERREFERENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Calzada, I. (2008), *Leitmotiv: (Euskal) Gizarte Berrikuntza*, Berria egunkaria <http://www.igorcalzada.com/2008/05/leitmotiv-euskal-gizarte-berrikuntza>
2. Calzada, I. (2008) *Zoo-sociología de la innovación*, Diario Noticias de Gipuzkoa egunkaria, <http://www.igorcalzada.com/2008/01/zoo-sociologia-de-la-innovacion>
3. Calzada, I. (2008), *Innovación: ¿Para qué?*, Diario Noticias de Gipuzkoa egunkaria, <http://www.igorcalzada.com/2008/01/innovacion/>
4. Calzada, I. (2013). *Critical Social Innovation for a City-Regional Europe*. *Social Innovation Europe Digital European Commission Magazine*. December.
5. Calzada, I. (2013), *Macro. Meso. Micro*. *Social Innovation Europe Digital European Commission Magazine*. December.

6. Calzada, I. (2014), [*City-Regional Policies*](#), paper given at the Sharegune Workshop at the Basque Institute of Competitiveness, Orkestra – University of Deusto (Spain), 26th May.
7. Calzada, I. (2014), [*Smart Cities? PostIndustrial Towns FabLabs*](#), paper given at the Local Development week in Bilbao (Spain), 8th May.
8. Calzada, I. (2014), [*Critical Social Innovation in a Smart City era for a City-Regional European Horizon 2020*](#) paper given at the St. Antony's College, European Studies Centre, University of Oxford (UK), 29th January.
9. Calzada, I. (2014), [*New Roles for Design Museums: Postcrisis Museums as the Community-driven Social Innovation Centres*](#) paper given at the Design Museums for the 21st Century Conference. University of Southern Denmark, Kolding (Denmark), 23th January.
10. Calzada, I. (2014), [*Balance and Imbalance Territorial Development Strategies*](#), paper given at Klimagune 2013 Workshop entitled Opportunities, Challenges and Barriers for Transitions Towards Sustainability in the Context of Climate Change, Bilbao, 19th December.
11. Calzada, I. (2015), [*Connecting the Basque and Iceland Cases: An Ethnographic Chronicle about Democratic Regeneration*](#). In Open Democracy.
12. Calzada, I. (2014), [*Lessons from the Mondragon Co-operatives for a TransLoKal Academic Entrepreneurship*](#), paper given at the MA Master in Social Entrepreneurship at Goldsmiths, University of London, on 7th July.
13. Calzada, I. (2014), [*Critical Social Innovation in a Smart City era for a City-Regional European Horizon 2020*](#) paper given at the St. Antony's College, European Studies Centre, University of Oxford (UK), 29th January.
14. Calzada, I. (2013), [*Entrepreneurs & Territories*](#), paper given at the Research Symposium Skool Centre for Entrepreneurship, Säid Business School, University of Oxford (UK), 23rd July.
15. Calzada, I. (2013), [*Highlighting the Territory & Social Innovation importance in the Mondragon case*](#). paper given at the EMES 4th International Research Conference on Social Enterprise, Liege (Belgium). 1st July.
16. Calzada, I. (2013), [*Do Social Networks provoke Civil Transformation?*](#) paper given at the Statutory Parliament Conference. University of Navarra. Pamplona (Spain), 7th November.
17. Calzada, I. & Björk, F. (2013), [*Basque & Oresund Connection from the Social Innovation*](#), paper given at San Telmo Museum, St. Sebastian (Spain), 8th May.
18. Calzada, I. (2013), [*Balance and Imbalance in the City-Regions*](#), paper given at the University of the Basque Country. Bilbao (Spain)[1], 3rd May.
19. Calzada, I. (2013), [*Social Interaction Spaces for Entrepreneurship at the MicroUrbanism level: Basque City-Region Diagnostic Mapping Case Study*](#) paper given at the 6th International Conference for Entrepreneurship Innovation and Regional Development. Regional Economic Resilience through Innovation and Enterprise. Istanbul (Turkey), 1st March.
20. Calzada, I. (2012), [*How could we activate Culture Citizenship across City-Regions in Europe? Spaces for Interaction & Social Entrepreneurship in a Network Territory*](#) paper given at the Euroculture Programme, Institute of European Studies International Congress, University of Deusto. Cuadernos Europeos de Deusto. Bilbao (Spain), 20th June.
21. Calzada, I. (2012), *Will Social Innovation Save Spain?* paper given at [*The Hub of Islington*](#). London (UK), 12th November.